

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO EGOITZAK

NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Adineko jendea gau eta egun bertan zaintzeko zentroak, ostatu eta mantentze-zerbitzuak, higiene- eta osasun-laguntzak eta gizarte-dinamizazioko jarduerak ematen zaizkielarik bertan.

MERKATU-DATUAK

□ *Eskaintzaren azterketa*

Egoitza-eskaintza pribatua Espainian 3.400 zentrokoa da, 2000. urtean 1.250 milioi euro baino gehiago fakturatu zituztelarik DBK-ren arabera. Urteko hazkunde-indizea %12 baino gehiagokoa da. Postu-kopurua antzeko erritmoan hazi zen, eta gutxi gorabehera 162.000 ingurukoa da, egoitza bakoitzean 47,6 postu daudelarik batez beste.

Biztanleria gero eta zaharragoa izateak, emakumea etxetik kanpoko lanetan gero eta gehiago jarduteak eta familien errenta gero eta handiagoa izateak eragin dute hirugarren adinekoentzako egoitza pribatuen merkatua biziki haztea.

Ahalegin hori gorabehera, eta aurreikuspenen arabera, hirugarren adinekoentzako egoitza-premia gehitu egingo da datozen urteotan, eta beraz ekimen pribatuak bete beharko ditu merkatu-zoko batzuk, balioetsi egin beharko direlarik ekimen horiek herri-erakundeetatik jaso ditzaketen edo ez ditzaketen laguntzak.

□ *Eskariaren arabera*

Gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan 353.000 lagun baino gehixeago daude 65 urtez gorakoak, eta EUSTATEk egindako aurreikuspenen arabera, kopuru hori 490.000koa izango da 2020. urtean; horrek %40 inguruko hazkundera esan nahi du eta urtean batez beste %2 inguruko hazkundera.

EUSTATen 2000. urteko Gizarte Zerbitzuen estatistikak dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 290 egoitza zeuden hirugarren adinekoentzat, 90 publiko eta 200 pribatu, guztira 11.046 erabiltzaile daudelarik, 5.080 egoitza publikoetan eta 5.966 egoitza pribatuetan.

Datu horien arabera, 65 urtez gorako jendearen %3,2 dago zainduta; kontuan izaten badugu Europako Batasunean egoitzetan batez beste %6rentzat daudela postuak, eta kopuru horretara iritsi nahi bada, biztanleriaren kopuru-hazkundera kontuan izanda, 29.400 postu beharko genituzke egoitzetan 2020. urterako, eta horrek egungo eskaintza bikoiztea esan nahi du 20 urteko epean.

Zaharren egoitzak. 2000. urtea

<i>EAE</i>	GUZTIAK	PUBLIKOAK	PRIBATUAK
Egoitzak	290	90	200
Araba	63	24	39
Bizkaia	149	19	130
Gipuzkoa	78	47	31

<i>EAE</i>	GUZTIAK	PUBLIKOAK	PRIBATUAK
Egoitzak	290	90	200
Lekuak	11.668	5.414	6.254
Erabiltzaileak	11.046	5.080	5.966

Iturria: Gizarte Zerbitzuen Estatistika. EUSTAT

_> 65 urteko jendea.....353.464 %16,9
 _> 75 urteko jendea.....142.679 %6,8

ENPRESA-PLANA

Marketin-plana

□ *Produktua/zerbitzuak*

Oinarrizko zerbitzua hirugarren adinekoei ostatua, mantenua eta arreta ematea da. Arreta ez da higie- eta osasun-arlokoa bakarrik, baita zaharren aisialdiari buruzkoa ere: irakurketa, lantegi didaktikoak, mahai-jokoak... Zerbitzu gehigarri batzuk eskaintzea ere komeni da: fisioterapia eta ile-apaindegia, adibidez. Zerbitzua erdiko eta erdi-goiko segmentuari ematea planteatzen badugu, zerbitzu sofistikatuagoak sartu beharko ditugu zaharren bizi-kalitatea eta aisialdia hobetzeko: mantentze-gimnastika, interneteko eta nabigatzeko tutoretzak, dantza...

Bi erabiltzaile-kategoria bereiz genitzake: beren buruaz baliatzen direnak, eta ez direnak, gaur egun erdiz erdi daudelarik gutxi gorabehera (%50). Beren buruaz baliatu ezin direnen artean, gero eta presentzia handiagoa dute Alzheimer gaixoek. Horregatik, interesgarria da buru-errehabilitaziorako zerbitzuak eskaintzea.

Gero eta garrantzitsuagoa da kalitate-politikak aplikatzea. Egoitzen kalitatezko Q Autonomia Erkidegoetako ordezkarien, Erakundeen, AENOR-eko teknikarien eta Hirugarren Adineko Sektorearen ordezkarien artean lan-ordu asko eman

ondoren sortu zen. Eta hori lortzea bereizgarri garrantzitsua da oraindik ere. Enpresa-kultura gisa: bizi-kalitatea gure nagusientzat, kalitatea instalazio eta zerbitzuetan, kalitatea langileei dagokienez, erabateko kalitatea bizitza hobe emateko egoiliarrei; eta horretarako zeure zentroaren barne- eta kanpo-harremanak hobetu behar dira, ondorioz diru-sarrerak ere gehitzen direlarik.

□ *Sustapena*

Sustapen-lana egiteko bi aukera daude:

10. Lehenengoa da erakunde publikoekin (..... eta udalekin) eta pribatuekin (Mutua, aseguru-konpainia eta finantza-erakundeekin, batez ere aurrezki-kutxekin) itunak egitea zerbitzu hau hitzarmen bidez emateko.
11. Bigarrena da sustapen-ekintzak egitea zaharren familien artean eta zaharren euren artean. Ez da komeni zuzeneko marketin-ekintzarik egitea, jendearen pribatutasunean eta oso gai delikatuetan muturra sartzea bezala hartzen baita. Hobe da tokian tokiko egunkari, irrati eta telebistan iragarkiak jartzea. Bezero batek besteari esaten diona oso garrantzitsua da jarduera honetan, erreferentzia onak oinarritzeko baitira iraupen luzeko zerbitzua emateko, non oso garrantzitsua baita kalitate-estandarrak mantentzea.

Plan Operatiboa

□ *Lokala eta kokapena*

Alderdi lasai eta zabaletan kokatzea komeni da, hiriguneetatik hurbil. Hotel zaharrek jarduera-baimena galdu ostean, horietako asko hirugarren adinekoentzako egoitza bihurtu izan dira.

□ *Ekipamendua*

- Harrera. Gau eta egun egon behar du zabalik 24 orduetan, eta horrek etengabeko komunikazioa ematen die egoiliarrei, bai barruarekin eta bai kanpoarekin; eta familiakoei berehalako informazioa lortzeko aukera ematen die, telefono bidez nahiz pertsonalki.
- Areto eta gela sozialak. Gela bereziak egon daitezke TB ikusteko, joko-gela, liburutegia, etab. Gela zabalak badira, hobe, horietan aldizka festak, lehiaketak, kontzertuak eta beste era bateko kultur eta animazio-ekitaldiak antolatzeke era izango baita.
- Jangela. Premia desberdinetara egokitu behar du, egunero hainbat menu eskainiz, zerbitzu medikoak agindutako dieta berezietz gain.
- Apartamentuak (banakoak edo partekatuak) eta banako gelak.

- Beste zerbitzu posible batzuk: erizaindegia, kafetegia, joko-gela, kartatarako aretoa, liburutegia, gizarte-animazioko lantegia, elizkizunetarako kapera...

Giza baliabideen plana

Hirugarren adineko egoitzetan langile hauek beharko ditugu:

- Zentroaren zuzendaria/administratzailea, bere lan-taldearekin.
- Osasun-zuzendaria, zaharren osasuna kontrolatzeko, behar besteko laguntza-taldearekin aldizka azterketak egiteko eta larrialdi-kasuetan esku hartu ahal izateko.
- Zaharren laguntza eta animazioaren arduraduna, dinamizatzaile-taldearekin.
- Ostatu- eta mantenu-zerbitzu egokia bermatuko duen talde teknikoa: gobernatzaileria eta solairuetako zerbitzariak, eta jangela-, jatetxe- eta kafetegi-zerbitzuak.

Inbertsio-plana

Asko aldatzen da egoitzaren tamainaren eta eman nahi diren zerbitzuen arabera, baina nekez jaitsiko da 600.000 euroatik behera.

Garapen-en elkartutako agentzietan autoenplegurako orientabide- eta laguntza-zerbitzuak eskaintzen dira.

<http://www.garapen.net>

Administrazio-izapideak

EAE: Administrazio-prozedura hauek jarduera bat abian jartzeko sektoreka dauden laguntzak eta egin beharreko izapideak azaltzen dituzte.

<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?Cmd=listarAyudas&lenguaje=es>
<http://www.ej-gv.net/m20/M20BusquedaProcedimientosServlet?lenguaje=es&EstadoVigencia=1>

Enpresa bat sortzeko informazio osoa

<http://www.creaciondempresas.com/>

Laguntzak, diru-laguntzak eta bekak

Espainia. Herri Administrazioen Ministerioa.

Estatuko Administrazio Orokorrak eta Autonomia Erkidegoek deitutako laguntza, diru-laguntza, beka eta sariei buruzko kontsulta lagundua, baita Europako Batasunak eta Toki Administrazioak deituriko batzuei buruzkoa ere.

IDEIAK ETA ARRAKASTAREN GAKOAK

- Espezializazioa: erdiko eta erdi-goiko segmentura zuzentzea, edo hirugarren adinekoen merkatu alemanarentzako egoitzetara.
- Kalitate-ziurtagiria izatea balio handiko bereizgarria da.
- Giza baliabideak eta horiek zaharrenganako dituzten maitasuna eta konpromisoa arrakastaren gakoetako bat izango da. Zaharrak errespetatuak eta maitatuak sentitzen badira, senideei jakinaraziko diete eta batak besteari egindako propaganda egoitzarentzat onuragarri izango da.
- Ekintzailearentzat mehatxu bat: sektoreak duen hazkunde-joerak bere isla du egoitza berriak eraiki eta ustiatzeko martxan dauden proiektu askotan, higiezin elkartean edo finantza-erakundeek eurek sustatuta. Kasu askotan itunak egin dira eta elkarrekin sozietate edo baltzuak eratu dira jarduerak garatzeko.

HELBIDE INTERESGARRIAK

Informazio orokorra

<http://www.gizarte.net>

<http://www.inforesidencias.com>

<http://www.tercera-edad.org>

<http://www.geriaticos.org>

<http://www.redmayores.net>

Instituto para la mejora, promoción e innovación de la calidad de vida de las personas mayores — Adinduen bizi-kalitatea hobetu, sustatu eta berritzeko Institutua

<http://www.edad-vida.org>

Matía Fundazioa

<http://www.matiáf.net>

Federación Nacional de Residencias Privadas de Tercera Edad — Hirugarren Adinekoen Egoitza Pribatuen Federazio Nazionala

<http://www.fnrpte.com>